

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 20/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa. Onestea alda dadila Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean telelana ezartzeko araudia onesten duen abuztuaren 4ko 26/2020 Foru Dekretua

Foru dekretu honen bidez, aldatu egiten da abuztuaren 4ko 26/2020 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean telelana arautzen duena.

Aldaketa horretarako bi arrazoi daude, biak ere erakunde honetan telelana martxan jartzearen esperientziarekin lotuak, bertan bi deialdi egin baitira orain arte. Alde batetik, egiaztatu da telelana lanpostu askotara hedatu daitekeela eta, horregatik, 3.2 artikuluan jasotako muga ahalik eta gutxien murrizteko moduan ulertu behar da.

Beste alde batetik, gure inguruko erakundeetan telelana arautzen duten araudiak aztertirik, ondoriozta daiteke gure deialdien iraupena (8 hilabete) laburrenetakoa dela. Era berean, telelangileek behin eta berriz eskatu dute deialdien iraupena luza dadila, telelana ebaluatzeke galdetegietan. Lan modalitate hori ezarri den unitateen arduradunek, bestalde, modu positiboan ebaluatu dute telelana, bai egindako lanaren kopuruari dagokionez, bai lanaren kalitateari dagokionez.

Azpitarratu behar da abuztuaren 4ko 26/2020 Foru Dekretuaren 1.2 artikulua honela zehaztu zuela araudi horren helburua: "foru administrazioa modernizatzen laguntzea eta bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala bateragarri egiten laguntzea, lana etxetik egiteko malgutasunaren bidez, dedikazioa eta zerbitzuaren kalitatea murriztu gabe"

Telelanerako urteroko deialdien iraupena kontziliazioarekin loturik dago. Kontziliazio hori telelanaren helburuetako bat da. Arabako Foru Aldundian telelanaren ebaluaziotik ateratako ondorioak ikusirik, arduraldia eta zerbitzuaren kalitatea mantentzeko moduan gauzatu da telelana. Hortaz, telelana arautzen duen Arabako erregelamendua aipatutako bi alderdietan aurkaratu ez den arren, gure ustez aldatu egin behar da, hura ezarri izanaren helburuak betetzen direla bermatzeko.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Ez dira bete maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan aurreikusitako izapideak (29/2017 Foru Dekretua, xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duena). Izan ere, itundutako gaia denez eta sindikatuarekin negoziatzen denez, prozedura espezifiko baten pean dago, eta, hortaz, 29/2017 Dekretuaren 1.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, haren aplikazio eremutik kanpo egongo litzateke.

Dekretua ematen da Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege erregimenari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.17 artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen dizkion eskumenen babesean, sindikatuekin negoziatu ondoren.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen aurretzako fiskalizazioaren baiezkotza I-2022-00376 zenbakiko txostena.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean telelana arautzen duen abuztuaren 4ko 26/2020 Foru Dekretuaren aldaketa

Bat. 3. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“3. artikulua. Aplikazio eremua

1. Araudi hau Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean lan egiten duten karre-rako funtzionarioei eta bitarteko funtzionarioei aplikatuko zaie, baldin eta dekretu honen 7. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

2. Beren ezaugarriak direla eta, ezin dira telelanaren bidez bete ezaugarri hauek dituzten lanpostuak:

a) Oro har, herritarrentzako arreta eta informazio postuak, erregistro eta arreta bulegoak, obrakoak.

b) Nahitaez zerbitzu presentzialak ematea dakarten lanpostuak. Zerbitzu presentzialak dira langilearen presentzia fisikoarekin soilik bermatzen direnak.

c) Beren izaera dela eta, lantokitik kanpo eman ohi diren lanpostuak.

d) Kontu handiz zaindu beharreko informazioa edo bereziki babestutako datuak erabiltzen dituzten lanpostuak.

3. Halaber, dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geratzen da modalitate ez-presentzialeko lana garatu beharreko epean lan ordutegiaren barruan iraupen luzeko ikastaro presentzialak egiten ari diren edo egiteko baimena duten langileak, salbu eta lantokitik edo telelana egiten den lekutik hurbil dagoen zentro batean ematen diren euskara ikastaroak badira.

4. Bestalde, laneratzea errazago egiteko helburua betetzeko, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak zerbitzua emateko modu hori ahalbidetzeko eskubideari eusten dio lehentasunez, betiere, 7. artikuluan ezarritako baldintzak betez, muga funtzional zorrotzak dakartzaten mugikortasun urriarengatik edo neoplasia gaiztoengatik osasun arazoak dituzten pertsonen zuzenduta, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak egiaztatzen badu telelanak lagun dezakeela prozesua hobetzen edo egonkortzen.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak beretzat gordetzen du beti telelanaren salbuespenezko baimenean inguruabar edo kasuistika hauek kontuan hartzeko aukera: genero indarkeriaren biktima diren pertsonak, edo lanpostura pixkanaka itzultzea Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuak egiaztatutako gaixotasun onkologikoengatik edo larrirasun bereziko gaixotasunengatik, alta medikoa ematen denetik urtebeteko iraupenarekin.

5. Salbuespen gisa, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak telelanaren modalitatean zerbitzuak ematea baimendu ahal izango du kasu hauetan:

a) Ohiko lantokitik kanpoko zerbitzu batengatik joan-etorria ez bada eraginkorra, eta gainerrako lanaldia telelanaren erregimenean osa badaiteke.

b) Zerbitzuaren premiengatik enkargu espezifiko eta definituak eratoritzen direnean, baldin eta enkargu horiek denbora tarte jakin batean egin behar badira eta eraginkorragoa eta ego-kiagoa bada telelanaren modalitatea erabiltzea.

c) Bigarren mailarainoko odol ahaidetasuna duen senide baten, ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen gaixotasuna edo istripua dela eta langilea bertan egotea ezinbestekoa bada, langileak eskubidea izango du gehienez ere bere ohiko lanaldiaren ehuneko 60an urrutitik lan egiteko, hori teknikoki eta arrazoiz posible bada, eta eskubide hori baliatzea justifikatzen duen egoerak irauten duen bitartean.

d) Jarduera aldi baterako eten edo eragozten duen ezinbesteko kasua gertatzen denean, eta babes zibileko planetatik eratorritako kutsadura, osasun krisi edo larrialdi egoerak deklaritzen direnean, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak horretarako xedatzen duenaren arabera”

Bi. 8. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“5. artikulua. Telelanaren iraupena

1. Zerbitzua modalitate ez-presentzian emateko denbora tarteak funtzio publikoaren arloan aginpidetza duen saileko titularraren ebazpen bidez ezarriko dira urtero-urtero, betiere dekretu honek ezarritakoaren arabera egin beharreko deialdian.

2. Betiere, telelanak enpleguari modalitate presentzialera itzultzean nolabaiteko kaltea eragin diezaiokeen deserrotzea edota ohituren eta usadioen aldaketa handia sortzea saihesteko, honakoa denbora muga hauek ezartzen dira, deialdi bakoitzean zehaztuko direnak:

a) Telelan aldi etengabeak gehienez ere hamar hilabete iraungo du, lehentasunez irailetik ekainera arte.

b) Oro har, telelan aldien arteko denbora gutxienez bi hilabete izango da, lehentasunez uztaila eta abuztua. Salbuespen gisa, justifikaturik badago presagatik eta zerbitzua eman beharragatik, edo osasun arazoengatik, lantokirako distantziagatik edo adingabeak edo familiakoak zaindu beharragatik, beste telelan aldi bat baimendu ahal izango da, gehienez ere bi hilabetekoa, gutxienezko denbora tarte hori igaro baino lehen.

3. Zerbitzuaren prestaziorako baimenaren epea amaitzen denean modalitate ez-presentzialean, enpleguak berriro ere ekin beharko dio modalitate presentzialari, betiere telelanaren bidezko zerbitzu prestazioa hasi aurreko egunean betetzen duen lanaldiaren erregimenarekin edo Funtzio Publikoko Zuzendaritzak onartutako lanaldi aldaketen ondoriozko erregimenarekin.”

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA